

HelpThy

Diru-sarrereren iturriak: Zerbitzu bat sortuko dugunez, gure diru sarrereren iturriak ez dira empresa konbentzionalak bezalakoak izango. Beraz saiatuko gara ahalik eta diru-sarrera gehien eskuratzea online bidez produktu fisiko bat eskaintzen ez dugulako. Gure aplikazioaren deskarga prezioa doan izango da. **Standard** ereduan, oinarrizkoena izango dena, beraz, gure aplikazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, gure zerbitzu guztiak erabili ahal izateko, harpidetzak kontratatu beharko dira, eta harpidetzak "**Premium eta ProHelpThy**" kostu gehigarria izango dute; beraz, hiru plan izango dira, doako bat eta bi kostu gehigarriekin eta suskripzio planak hilabetekoak izango dira, baina urteko harpidetzak ere eskainiko ditugu, horiek kostu txikiagoa izango dute kontsumitzailearentzat harpidetzak hilerok kontratatu beharrean. Harpidetzen prezioak zehazteko, gure zerbitzuen kostuak kalkulatu genituen eta hortik aurrera, harpidetza bakoitzeko prezioak ezarri genituen.

Standard(0€) planean erabilgarri egongo diren zerbitzuak hurrengoak izango dira.

- Anamiaren interfaz interaktiboa
- Gihar bakoitzaren informazioa
- Giharrak luzatzeko eta indartzeko ariketak + lesioak ekiditzeko ariketak.
- Gihar bakoitza lantzeko material espezifikoaren informazioa.
- Gihar bakoitzean eragiten dituzten lesio eta akats ohikoenak.

Premium(3,99€) planean erabilgarri egongo diren zerbitzuak.

- Doako plan osoa.
- Tracking System (GPS) funtzioa.
- Nutrizio-gomendio osasuntsuak eta ariketa fisiko osasungarriak.

ProHelpThy(6,99€) planean erabilgarri egongo diren zerbitzuak, hurrengoak dira:

- Doako plan osoa
- Premium plan osoa
- Tratu pertsonalizatua profesionalekin (Fisioterapeutak, nutrizionistak eta entrenatzaile pertsonalak)

**Tratu pertsonalizatua profesionalekin: Tokiko fisioterapeuta, nutrizionista eta entrenatzaile pertsonalekin kolaborazioak egingo ditugu, haiei gure bezeroak bidaltzeko eta guk haiengan dirusarrerak lortuko ditugu, bere negozioak gure aplikazioan sustatzeagatik.

Bestalde, gure aplikazioetan iragarkiak jarriko ditugu hortik diru-sarrerak lor ditzagun. Nahi dugu osasunarekin eta kirolarekin lotutako enpresek eta erakundeek gure aplikazioaren iragarkietan beren zerbitzuak sustatu nahi izatea (prezio bat

ordainduta). Era berean, bezeroarekin zerbitzu pertsonalizatua emateko profesionalekin lankidetzan aritzea gustatuko litzaiguke eta haiek ProHelpThy plan kontratatu bakoitzeko %5-ko komisioa lortuko lukete, eta gainera, aldi berean, haiei promozionatu egingo genituzke.

Azken hori elkarrekiko lankidetzaz izango litzateke, eta denok irabaziko genuke; izan ere, guk bezeroak erakartzen ditugu, eta profesionalek, esaterako, masajistak, nutrizionistak, entrenatzaileak... HelpThy-n promozionatuta egongo lirateke eta horrek bezeroak lortzen lagunduko lieke. Beste aldetik, online-iragarkiak funtzionatzeko eta eskaria lortzeko, AdNetwork erabili beharko genuke Helpthy osasun eta kirol arloetako webguneetan sustatzeko.